




BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2025

Bilbao Observatorio

LABURPENA

2025eko amaierarako aurreikuspenak ez dira hain negatiboak izaten ari, kanpo-politikako eta muga-zergen (Trump-en administrazioa) aldaketan iragarpenik okerrenak (birdoitu dira) desagertzen ari baitira. Hala ere, inflazioaren kontingentziak indarrean jarraitzen du, eta hori da hazkundearen eta politika ekonomiko eta fiskal sinesgarri eta gardenak ezartzeko beharren oztopoa.

Baieztatu da 2025 aurreikusitakoa baino zertxobait hobea izaten ari

Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsak adierazi du *"munduko ekonomia aldatzen ari dela, hazkunde-aurreikuspen ilunekin"*, apirileko aurreikuspenak hobetzen dituen 2025erako balantze baten arabera, baina onartu du egiturazko oztopoak zuzendu gabe daudela oraindik, eta, beraz, epe ertain eta luzerako munduko hazkunde ekonomikoa baldintzatzen dutela. Hala, aurreikuspen berrien arabera, 2025 eta 2026an ekonomia % 3,2 eta % 3,1 haziko da, hurrenez hurren, eta apirilean egindako doikuntzaren zatirik handiena berreskuratuko da, baina ez dituzte urte hasierako (urtarrila) aurreikuspenak gainditzen, eta, nolana ere, pandemiaren aurreko hamarkadan izandako batez besteko hazkundearen (+ % 3,7) azpitik mantentzen dira.

Munduko hazkunde % 3,2 eta % 3,1ekoa izanik, 2025 eta 2026rako

Urrian, apirileko aurreikuspenekiko (txarrenak) aplikatutako zuzenketa bi hamarrenekoa da AEB-ko (+% 2,0) eta hirukoa Eurogunerako (+% 1,2), Alemaniari (+% 0,2, +2 hamarren), Italiari (+% 0,5, + hamarren 1) eta Frantziari (+% 0,9, + hamarren 1) aplikatutako igoeretan oinarrituta, baina, batez ere, Espainiari (+% 2,9), EB-27ko ekonomia handien artean pronostikorik onena izango duena baita.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, euskal ekonomiaren hazkundea hamarren bat hobetuko da 2025erako (+% 2,2), eta bi hamarren 2026rako (+% 1,9); beraz, ekonomia-dinamismo handiko ibilbidea finkatuko da (2024tik 2026ra), eta % 2 ingurukoa izango da. Aurreikuspen horietan, erabakigarria da barne-eskariaren portaera ona, eta, bereziki, familia-kontsumoarena, euskal ekonomiaren hazkunde jarraituaren bultzatzaile baita.

EAEko ekonomia % 2,2 haziko da 2025ean

Hirugarren hiruhilekora arte eskuragarri dauden datuek urtearen itxiera iragartzen dute, eta espero baino askoz ere positiboagoa izango da. Hala, nazioarteko merkataritza-jardueran aldaketak (aldebakarrekoak) iragartzeagatik sortutako ziurgabetasunaren eragina murriztu da. Horrela, Bilboko lan-merkatuaren adierazleek agerian uzten dute egungo egoera ona: Gizarte Segurantzaren 197.194 afiliatu ziren irailean (+% 2,1, urtetik urterako tasa), eta 3.976 afiliazio gehiago izan ziren. Araubide Orokorreko afiliazioan izandako hobekuntzaren emaitza da (+% 2,5), eta autonomoen araubidean (-% 0,2) eta etxeko enpleguaren araubidean (-% 2,5) izandako beherakada orekatzen du.

Bilbon (irailean) 197.194 afiliazio izan dira (+% 2,1, urtetik urterako tasa)

Era berean, hirugarren hiruhilekoan 31.721 kontratu gehiago erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean, eta hiruhileko arteko (+% 11,2) eta urte arteko (+% 8,7) igoera nabarmenak izan dira. Urtarril-iraileko balantze agregatuak % 1,8ko urte arteko hobekuntza berretsi du: 1.491 kontratu gehiago izan dira; guztira 86.016 aurtengo kopuru metatua. Itxiera partzial horren arabera, emaitza ona izango da 2025erako, kontuan izanik laugarren hiruhilekoa dela (urtaroko arrazoiengatik) kontratazio berri gehien izan ohi dituen.

...86.016 kontratu gehiago urteko kopuru metatua (+% 1,8)

Irailean, 20.927 langabe zeuden erregistratuta Bilbon, hau da, urtetik urtera % 1,8 gutxiago (392 langabe gutxiago). Hala ere, hiruhileko arteko igoera (+% 2,4) tentuz hartu behar da kontuan, oso ona izan zen bigarren hiruhilekoarekin alderatuta zenbatu baita (20.667 langabe ekainean). Izan ere, urtean batez beste 21.011 langabetu erregistratu dira, eta urte

...eta 20.927 pertsona langabezian (-% 1,8)

batetik bestera % 2,2 egin du behera, beraz, erregistratutako langabeziaren beheranzko joera berretsi da.

Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI; EIN) Bilboko 2025eko behin-behineko balantze positiboa egiten du (hiru hiruhilekoen batez bestekoa, 2024arekin alderatuta), biztanleria okupatuaren hazkundera (170,2 mila pertsona; +% 8,7) eta biztanleria langabe egoiliarren murrizketa (15,54 mila pertsona; -% 4,3) berresten baititu. Gainera, enplegu-tasak hobera egin du (% 54,69; +2,9 puntu ehunekoetan) eta langabezia-tasa % 8,28an geratu da (-1,1 puntu ehunekoetan).

Enplegu-tasaren hobekuntza (% 54,69) eta langabezia tasaren murrizketa (% 8,28)

Bigarren hiruhilekoko datuen arabera, merkataritza-sektorearen salmentek gora egiten jarraitzen dute (+% 0,9, prezio arruntetan), eta jarraian izandako bosgarren hiruhileko positiboa da. Emaizta hori txikizkako merkataritzaren salmentek (+% 4,6) eta ibilgailuen salmenta eta konponketek (+% 2,4) emaitza ona izan dutelako lortu da, eta handizkako merkataritzaren emaitza negatiboa orekatu dute (-% 1,2), joera aldakorragoa izan baitu. Gainera, sektoreak enpleguaren hazkunde-erritmoa berreskuratu du (+% 1,3); beraz, lehenengo hiruhilekoan izandako atzerakada (-% 0,4) egoeraren arabera izango litzateke, hamabost hiruhilekoko hobekuntza-testuinguru batean.

Merkataritzaren salmentak hazi egin dira (+% 0,9, prezio arruntak) eta enpleguak hobera egin du (+% 1,3)

Hirugarren hiruhilekora arte eguneratutako datuek erakusten dute Bizkaiko saltoki handien salmentek gora egin dutela (+% 3,5 eta +% 1,0, prezio arrunt eta konstanteetan, urtetik urterako tasan). Elikagai-segmentuaren igoeraren emaitza da (+% 3,7 eta +% 0,6, prezio arrunt eta konstanteetan), baita elikagaiena ez den segmentuarena ere (+% 3,0 eta +% 1,5, prezio arrunt eta konstanteetan), enpleguaren igoerak berretsita (+% 2,0, urtetik urterako tasan).

Bizkaiko saltoki handietako salmentak eta enplegua handitu dira

Hirugarren hiruhilekoan, 3.895 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian; beraz, 11.581 ibilgailu berri matrikulatu dira guztira urtean, aurreko urtean baino % 18,8 gehiago. Gainera, nabarmentzekoa da, batez ere, ibilgailu partikularren segmentuaren dinamismoa: igoera handia izan du (+% 20,7), eta 8.216 unitate matrikulatu dira; hau da, lurraldean matrikulatutako lau ibilgailu berritik ia hiru (% 71,0). Enpresen eta beste ibilgailu batzuen segmentuak ere hobekuntza nabarmena izan du matrikulazioan (+% 14,3).

11.581 ibilgailu matrikulatu dira urtean guztira (+% 18,8)

Hirugarren hiruhilekoak (uztailetik irailera) Bilboko hotel-jarduerak izandako hobekuntza nabarmena berresten du: 368.625 bidaiari (+% 7,1 urte batetik bestera) eta 746.391 ostatu-gau (+% 5,8). Zifra horiek maximo historikoetan kokatzen dute udaldia. Behin-behineko balantzea kontuan hartuta, hiru hiruhileko osoekin, ekitaldi-itxiera 2024koa baino positiboagoa izango dela aurreikusten da: milioi bat bidaiari eta bi milioi ostatu-gau inguru izango dira (+% 9,3 eta +% 8,6, urtetik urterako tasan), eta hazkunde garrantzitsua izango du atzerriko segmentuak (+% 10,5 eta +% 10,8, bidaiari eta ostatu-gauei dagokienez). Hazkunde horrek hiriko hotel-establezimenduetan erregistratutako bidaiarien eta ostatu-gauen guztizkoaren % 55,1 eta % 58,9 ekarriko ditu.

Bidaiarien eta ostatu-gauen igoera (+% 7,1 eta +% 5,8) udan

Bidaiarien eta ostatu-gauen kopuruak nabarmen egin du gora (+% 9,3 eta +% 8,6)

Loiuko aireportuan 2.046.199 bidaiari izan dira hirugarren hiruhilekoan (+% 1,4, urtetik urterako tasan), eta emaitza historiko horrek, era berean, erabat eraginkorrak diren sei ibilbide berri sartzearen eragina izango luke. Lehenengo hiru hiruhilekoetako balantze agregatua 5,3 milioi bidaiarirekin itxi da. Horrek esan nahi du urtetik urtera % 3,2 handitu dela, nazioarteko segmentuak bultzatuta (+% 9,8). Estatuko segmentuaren atzeraldi arina konpentsatzen du horrek (-% 1,6); aireportuaren zirkulazioaren erdia baino gehiago da (% 55, hegaldi komertzialetako bidaiarien kasuan).

... Loiuko udako dinamismoarekin bat eginda (+% 1,4)

... dagoeneko 5,3 milioi bidaiari izan dira aurtan

Hirugarren hiruhilekoan, Bilboko Portuak 8.377 mila tona garraiatu ditu, eta jaitsiera txiki bat izan du 2024ko hirugarren hiruhilekoan mugitutako salgaiekiko (-% 0,2). Izan ere, urte honetan (urtarriletik irailera) 23.813 mila tona kudeatu dira; horrek esan nahi du urte batetik bestera % 10,1 murriztu dela, ontziratutako gabeko likidoen jardueraren negatiboak (-% 15,2) oztopatuta, portuko jardueraren % 59,4 baitira. Laburbilduz, laugarren hiruhileko bikaina beharko litzateke ekitaldi honetan metatutako galera konpentsatzeko.

Baina, portuko jardueraren atzerakada handia izan da (-% 10,1, hiru hiruhileko)

Hirugarren hiruhilekoan¹ (uztaila-abuztua, behin-behineko datua) Bizkaiko industria-ekoizpenak emaitza positiboa izan du (+% 0,2), eta badirudi azken bost hiruhilekoetan izandako jaitsieratik urruntzen ari dela. Manufaktura-industriaren neutraltasuna (+% 0,0) eta uraren segmentuaren hobekuntza (+% 2,0) nabarmentzen dira; horiek, aldi berean, erauzketa-industrian (-% 1,3) eta energia, gas eta lurrunaren industrian (-% 0,1) izandako galerak konpentsatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, urteko balantze agregatua negatiboa da (-% 1,1) eta 2024ko emaitzak okertu ditu (-% 0,2).

... industria-jarduerak dinamismoa galdu du (-% 1,1, urtaril-abuztuko metatua).

Zerbitzuen sektorean salmentak igo egin dira bigarren hiruhilekoan (+% 4,9 eta +% 1,5, prezio arrunt eta konstanteetan), eta, beraz, eutsi egin zaio 2021etik izaten ari den hobekuntza-ibilbideari, zeina enpleguaren hobekuntzarekin batera gertatu baita (+% 1,0). Seiuhileko balantzea % 4,8 eta % 2,4 hazi da urte batetik bestera (prezio arrunt eta konstanteetan), eta 2024koak zertxobait hobetu dira (+% 4,5 eta +% 2,1).

... zerbitzuen salmentek, berriz, seiuhileko balantzea oso positiboa izan dela adierazten dute (+% 4,8 eta +% 2,4, urtetik urterako tasan, prezio

2025eko bigarren hiruhilekoan Bizkaiko BPGd-a % 2,2 handitu zen; beraz, bederatzi hiruhilekotan jarraian hazi da % 2tik gora. Gainera, hirugarren hiruhilekoko² aurrerapen-datuek adierazten dutenez, EAEko ekonomia % 2,2 hazi zen, eta ekitaldiaren ibilbide positiboa finkatu eta urteko helburura hurbildu zen³. Urteko helburua % 2,2 ingurukoa da, eta zifra hori oso aplikagarria da Bizkaiko ekonomiarako.

Bigarren hiruhilekoan Bizkaiko BPGd-a % 2,2 handitu zen

Enpleguak hazten jarraitzen du (+% 1,6), eta 500.789 lanpostura iritsi da, lanaldi osoko baliokidetzan; gainditu egin ditu urteko lehenengo hiruhilekoan erregistratutako enplegua (498.834 lanpostu) eta 2024ko (494.849) eta 2008ko (493.633) balantzea, serieko hiru baliorik handienak. Enplegu-kopuru horrek, gainera, lehenengo aldiz milioi erdi enpleguren langa gaitzartzea dakar. Hala, enpleguaren hazkunde-profil hori 2025eko urteko balantzean mantenduz gero, beste maximo historiko bat lor liteke.

Lehenengo aldiz LOBen milioi erdi lanpostu baino gehiago izan dira

Laburbilduz: 2025eko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, Bilbo eta Bizkaia kasuan, aurreikusten da 2025eko itxiera espero baino hobea izango dela, hasierako ziurgabetasunak gorabehera. Oro har, ia jardueraren guztiek sei hileko edo urteko lehenengo hiru hiruhilekoko balantzea osatzen dute. Horrek urtetik urterako nolabaiteko hobekuntza adierazten du, eta zerbitzu-jardueraren garrantzia berresten du, eraikuntzaren geldialdiaren eta industriaren dinamismo-galeraren aurrean.

Urteko kopuru metatuaren emaitzak positiboak dira, dagoeneko hiru hiruhileko positibo izan baitira.

Jardueraren ekonomikoaren sendotasun hori lan-merkatuaren adierazle ibilbidean ikus daiteke. Adierazle horiek oso positiboak dira, eta afiliazio-baliorik handienak dituzte. Balio horiek Bilboko eta Lurraldeko ekoizpen- eta enpresa-ehunetik eskura dauden lan-baliabideak hartzeko gaitasuna berresten dute. Perspektibaren ikusita, kontua da, pandemia, inflazioaren gorakada eta ziurgabetasun geopolitikoa gorabehera (gatazka belikoak, Trump-en Administrazioa eta bere muga-zergeren politika, besteak beste), Bilbok eta Lurraldeak hamarkada bat daramatela enplegua hobetzen, eta hori da pertsonen eta familien kaudimen sozioekonomikoaren adierazlerik onena.

... eta adierazlerik onena enplegua da, maximo historikoen balioak izaten jarraitzen baitu

¹ Eustatek Industria Produktzioaren Indizea seriean zuzendu du, eta, beraz, ezin da alderatu bigarren hiruhilekoko txostena.

² Irailaren 19an argitaratuak. Hirugarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak abenduaren 3an argitaratuko dira.

³ Ekonomia Zuzendaritzak, hiru hilean behin egiten dituen aurreikuspenetan (2025eko iraila), 2025erako urtetik urtera % 2,2ko hazkunde izango dela aurreikusten zuen, eta, Eustatek argitaratutako datuen arabera (+% 2,2, urtetik urterako tasan, hiruhileko bakoitzerako), hazkunde hori lortzea bideragarria dela dirudi.

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

"Politika berriek eraldatutako egoerara egokitzen ari da munduko ekonomia. Muga-zergea altuagoak ezartzeari buruzko muturreko jarrera batzuk apaldu egin dira, ondorengo akordio eta birplanteamenduei esker". Premisa horren arabera, erakundeak epe laburrerako (2025 eta 2026) aurreikuspenak doitu ditu, eta onartu du aldakortasuna hein batean murriztuz doala, baina ez dio garrantzirik kendu behar kontrako faktoreen eraginari, hala nola ziurgabetasun luzearen eraginari, sinesgarritasun politikoaren narriadurari, protekzionismoa areagotzeari eta hazkunde murriz lezaketan lan-eskaintzen shock-ei (eskasia orokorra eta profil zehatzena, oso modu orokortuan). Hala eta guztiz ere, inflazioaren murrizketak aurrera egiten du, baina herrialdeen arteko alde handiarekin, AEBen posizio erlatiborik okerrenea nabarmentzen da, ekonomia aurreratuen artean.

Munduko ekonomia % 3,2 haziko da 2025ean, 2024an baino hamarren bat gutxiago

Hala, aurreikuspen berriek % 3,2ko eta % 3,1eko hazkunde ekonomikoa aurreikusten dute 2025erako eta 2026rako, eta ehunekoetan 0,2 puntuko doikuntza aurreikusten da 2025erako, apirileko iragarpenarekin alderatuta; 2026rako zenbatespenak, berriz, bere horretan jarraitzen du. Beraz, aurreikuspen berriek apirilean egindako doikuntzaren zatirik handiena berreskuratu dute, baina ez dira urte hasierako (urtarrileko) aurreikuspenen mailara iritsi, eta, nolanahi ere, pandemiaren aurreko hamarkadan izandako batez besteko hazkundearen (+% 3,7) azpitik mantendu dira.

Aurreikuspen berriek apur bat hobetu dute apirileko iragarpena

Hazkunde ekonomikorako (BPGd) ...(e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	Apirila-2025		Uztaila-2025		Urria-2025	
		2025	2026	2025	2026	2025	2026
MUNDUKO BPGd-a	3,3	2,8	3,0	3,0	3,1	3,2	3,1
Ekonomia aurreratuak	1,8	1,4	1,5	1,5	1,6	1,6	1,6
Ameriketako Estatu Batuak	2,8	1,8	1,7	1,9	2,0	2,0	2,1
Eurogunea	0,9	0,8	1,2	1,0	1,2	1,2	1,1
Alemania	-0,5	0,0	0,9	0,1	0,9	0,2	0,9
Frantzia	1,1	0,6	1,0	0,6	1,0	0,7	0,9
Italia	0,7	0,4	0,8	0,5	0,8	0,5	0,8
Espainia	3,5	2,5	1,8	2,5	1,8	2,9	2,0
Emergenteak eta garatzen ari direnak	4,3	3,7	3,9	4,1	4,0	4,2	4,0
Txina	5,0	4,0	4,0	4,8	4,2	4,8	4,2
India	6,5	6,2	6,3	6,4	6,4	6,6	6,2
Brasil	3,4	2,0	2,0	2,3	2,1	2,4	1,9
Errusia	4,3	1,5	0,9	0,9	1,0	0,6	1,0

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Proiekzio berriaren arabera, hamarren bat haziko da ekonomia aurreratuen hazkunde-aurreikuspena 2025erako (+% 1,6). Hala, AEBrako aurreikuspena hobetu du (+% 2,0), baina urtarrian iragarritako % 2,7tik urrun jarraitzen du, barne-zailtasunek oztopatuta, inflazio-sekuentziak ez baitu behera egiten. Bestalde, Euroguneko hazkundearen kalkuluak bi

Hobekuntza orokorra, ekonomia aurreratu eta garapen-bidean daudenentzat

hamarren egin du gora (+% 1,2), urtarrileko kalkulua gaindituta. Espainiari esleitutako hobekuntzaren emaitza da (+0,4 puntu ehunekoetan), eta aztertutako Europako ekonomia handien jarduerarik onena⁴ mantentzen du; halaber, gorantz doitzen du Alemaniarako (+0,1 puntu ehunekoetan) eta Frantziarako aurreikuspena (+0,1 puntu ehunekoetan). Gainera, hamarren bat egin du gora egiten ari diren eta garatzen ari diren ekonomien hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak (+% 4,2), eta nabarmentzekoa da Indiari aplikatutako bi hamarreneko doikuntza, uztailarekin alderatuta, zerrendako herrialde bakarra baita % 6tik gorako hazkundearekin; Errusiarako aurreikuspena, berriz, jaitsi egin da (-3 puntu ehunekoetan).

Nazioarteko Diru Funtsak adierazten duenez, bigarren seihilekoko datuek nolabaiteko moteltze bat adierazten dute, eta, horregatik, "*hazkunde-aurreikuspen ilunak*" direla esaten da, kontrako faktoreak gailentzen baitira eta garrantzi handikoak baitira. Lau esparru nabarmentzen dira: nazioarteko merkataritza-formulak berriz pentsatu beharra, munduko hazkunde ekonomikorako oztopo izan ez daitezen; politika publiko sinesgarri eta gardenak bultzatzea; banku zentralen kaudimen fiskala eta independentzia, eta finantza-erakundeen sendotasuna, finantza-erakundeen sendotasunarekin batera, gerta daitezkeen kreditu-narriaduren aurrean.

Etheen konfiantza eta aurrezpena

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	2024		2025		
		III	IV	I	II	III
Etheen konfiantza¹ (±100)						
EB-27	-12,9	-12,0	-12,2	-13,5	-14,2	-14,1
Espainia	-15,2	-13,7	--	--	--	--
Etheen aurrezpena²; Δ % urte artean	4,2	3,4	4,2	4,6	3,9	5,1

1. Hiruhileko datua, hileko datuen batezbestekoa eta urteko datua, hiruhileko datuen batezbestekoa. 2024ko urriaz geroztik, Eurostatek ez ditu argitaratzen Espainiari dagozkion datuak (2024ko urteko datua behin-behinekoa da, eskura dauden hiru hiruhilekoen batez bestekoa).

2. Gordailuak. Hiruhileko datua, hiruhileko bakoitzaren azken hilabetearen itxierari buruzkoa, eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.

Europako familien konfiantzak⁵ azken hiruhilekoetan ezkor (-14,1) jarraitzen du; 2024ko hirugarren hiruhilekotik narriatuta dago, eta aldi horretan erregistratu da unerik ezkorrena 2021eko laugarren hiruhilekotik (-7,3). Emaitza hori herrialde bakoitzari dagokion ziurgabetasunak zehazten duela dirudi (zailtasun espezifikoak dituzte), eta horri ibilbide inflazionista gehitzen zaio, % 2ko mugaren azpitik itzultzea kostatzen ari baitzaio.

Hala ere, familien konfiantzaren ezkortasun txiki hori ez da Espainiako etxeetako aurrezkietan nabaritzen (+ % 5,1). Adierazle horrek gordailuen saldoaren bilakaeraren⁶ beste hazkunde bat erregistratu du, eta 2022ko hirugarren hiruhilekotik izan duen erregistrorik handiena adierazten du (+ % 5,4), 1.050.472 milioi eurora iritsi baita, abuztuaren amaieran.

Etheen konfiantza ezkor mantentzen da

Gordailuen (familien) saldoa hazten ari da

⁴ Espainiako ekonomiaren hazkunde ekonomikoa % 2,8koa izan da (urtetik urterako tasa) urteko lehenengo eta bigarren hiruhilekoan (EIN).

⁵ Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeke etheen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomiko orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketa handiak kontuan hartzen dira. Analisis EB-27ko datuarekin egin da, Eurostatek ez baitu Espainiaren daturik argitaratzen 2024ko urritik aurrera.

⁶ Espainiako etheen Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuen saldoa.

EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen⁷ arabera, 2025erako hamarren bat haziko da euskal ekonomia (% 2,2), eta 2026rako bi hamarren (% 1,9). Agertoki horrek % 2,1 inguruko urteko aurreikuspenak finkatzen ditu, eta, beraz, 2024an erregistratutakotik (+% 2,2) oso hurbil egongo den hazkundea izango da.

EAEko ekonomia % 2,2
haziko da 2025ean

Dinamismo ekonomikoa barne-eskariaren portaera onaren emaitza da (+% 2,5 eta +% 2,2); horrek 2025eko (bi hamarren) eta 2026ko (hiru hamarren) aurreikuspenak hobetzen ditu, eta kanpo-saldo negatiboa konpentsatzen du (-% 0,3 eta -% 0,2). Halaber, etxeetako kontsumoa erabakigarria izango da EAEko ekonomiaren hazkunde ekonomikorako (+% 2,7 eta +% 2,2). Dinamismoak hobera egingo du ekainerako zenbatetsitakoaren aldean, eta bat dator beste adierazle batzuen bilakaerarekin (txikizkako merkataritzaren salmenta, adibidez) eta, batez ere, enpleguaren une onarekin.

ETXEETAKO kontsumoa
izango da bultzatzailea
(+% 2,7)

Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2025eko ekaina		2025eko iraila		2025eko iraila (Hiruhilekoko banaketa)			
	2025	2026	2025	2026	III-25	IV-25	I-26	II-26
BPGd-a	2,1	1,7	2,2	1,9	2,3	2,2	2,0	2,0
Etheen kontsumoa	2,4	1,8	2,7	2,2	2,8	2,5	2,3	2,2
Kontsumo publikoa	2	1,7	1,2	1,9	1,0	1,6	1,7	2,7
Inbertsioa (KEG)	2,4	2,1	3,1	2,3	3,4	3,3	3,1	1,7
Barne eskariaren ekarpena	2,3	1,9	2,5	2,2	2,6	2,5	2,4	2,2
Kanpo-saldoaren ekarpena	-0,3	-0,2	-0,3	-0,2	-0,4	-0,3	-0,4	-0,2
Lehenengo sektorea	0,4	1,2	2,5	0,7	5,4	4,1	0,5	0,4
Industria eta energia	0,9	1,4	0,4	1,6	0,3	1,0	1,5	1,6
Eraikuntza	2,1	1,8	2,5	2,0	2,8	2,6	2,3	1,8
Zerbitzuak	2,5	2,2	2,7	2,1	2,7	2,5	2,2	2,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia Zuzendaritza (2025eko Iraila).

Eusko Jaurlaritzak ere lau jarduera-sektore handiei begira doitu ditu bere aurreikuspenak. Zehazki, lehenengo sektoreak (+% 2,5 eta +% 0,7; +2,1 puntu ehunekoetan eta -0,5 puntu ehunekoetan), eraikuntzak (+% 2,5 eta +% 2,0; +0,4 puntu ehunekoetan eta +0,2 puntu ehunekoetan) eta zerbitzuen sektoreak (+% 2,7 eta +% 2,1; +0,2 puntu ehunekoetan eta -0,1 puntu ehunekoetan) gora egitea espero da, industriaren eta energiaren beheranzko berrikuspenaren aldean (+% 0,4 eta +1,6; -0,5 puntu ehunekoetan eta +0,2 puntu ehunekoetan).


Aurreikuspen horiek bat datoz EAEko termometro ekonomikoaren⁸ emaitza onekin; izan ere, 2025eko hirugarren hiruhilekorako 102,9 puntuko balioa kalkulatu du termometroak, eta igoera bat izan du bigarren hiruhilekoan erregistratutako zifrarekiko (96,0), eta igoera hori 2024ko hirugarren hiruhilekoko bano handiagoa da (97 puntu; 5,9 puntu gehiago). EAEko

⁷ 2025eko urrian argitaratutako kalkuluak.

⁸ Erreferentzia-unearen egoeraren adierazlea: hazkunde irmoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundera (50etik behera).


enpresen 2025eko laugarren hiruhilekorako aurreikuspenek⁹ positiboak izaten jarraitzen dute (53,6 puntu), baina beheranzko joera argia ikusten da azken bi hiruhilekoetan aztertutako alderdi guztietan. Hori guztia, besteak beste, inguruko ekonomien susperraldiak eraginda.

EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ekonomia Zuzendaritza

EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

EAEko familien konfiantza¹⁰ neutraltasunetik hurbil dago (-6), eta egonkor aurreko hiruhilekoaren aldean (-6 puntu); 2023ko laugarren hiruhilekotik izan den erregistrorik okerrera izan da (-9). Eraitza hori ekonomia orokorraren martxari lotutako ezkortasunak baldintzatzen du (-22), eta, neurri txikiagoan, etxeko ekonomiari lotutakoak (-9), enpleguaren martxaren itxaropenei (+2) eta familien aurrezteko gaitasunari (+4) buruzko baikortasun-testuinguru batean.

⁹ Inkesta EAEko 400 enpresari egin zitzaizen. Landa-lana 2025eko irailaren 8tik 11ra egin zen.

¹⁰ EAEko 800 etxetan egindako kontsulta, 2025eko maiatzaren 13tik 25era.

EAEko etheen konfiantza

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	2024	2024		2025		
		III	IV	I	II	III
Etheen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-4	-4	-2	-4	-6	-6
Iturria: EAEko etheen konfiantza, Laboral Kutxa						

Iturria: EAEko etheen konfiantza. Laboral Kutxa

Prezioak eta inflazioa

Irailean, inflazioak gora egin zuen, baina urtariletik ez zen halakorik ikusi: prezioak % 3,2 igo ziren Bizkaian, % 3,3 EAEn eta % 3,0 Espainian. Hala, urteko lehenengo hiruhilekoan hasitako hazkunde mantendu egingo da, eta, aurreikuspenen arabera, urte amaiera arte mantenduko da. Antzeko mailetan bada ere, portaera hobea izan du Estatuak EAEk eta Bizkaia baino (+% 2,6, +% 2,9 eta +% 2,9, hurrenez hurren, urtarrila-iraila bitarteko batezbestekoaren arabera).

Urtariletik hona, inflazio-
ratorik handiena irailean
erregistratu da

Bestalde, azpiko osagaiak (+% 2,4 eta +% 2,6, Estatuan eta EAEn) egonkor samar jarraitzen du, eta Estatuan zertxobait igo da urtean zehar; Euskadin, berriz, pixka bat aldakorra izan da. Hala eta guztiz ere, eta EINen arabera, inflazioaren gorakadan duten eraginagatik nabarmendutako taldeak hauek dira: batetik, garraioa, erregaiei prezioen beherakadaren ondorioz, eta, bestetik, etxebizitza, elektrizitatearen prezioen beherakadaren ondorioz.

KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

		KPI Orokorra			Azpiko KPI ¹	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2024	urria	1,8	2,3	2,3	2,5	2,8
	azaroa	2,4	2,9	2,9	2,4	2,8
	abendua	2,8	3,6	3,6	2,6	3,3
	urtarrila	2,9	3,5	3,4	2,4	2,9
	otsaila	3,0	3,3	3,1	2,2	2,4
	martxoa	2,3	2,8	2,7	2,0	2,5
2025	apirila	2,2	2,6	2,5	2,4	2,8
	maiatza	2,0	2,4	2,4	2,2	2,5
	ekaina	2,3	2,8	2,8	2,2	2,7
	uztaila	2,7	3,0	2,9	2,3	2,5
	abuztua	2,7	2,8	2,7	2,4	2,5
	iraila	3,0	3,3	3,2	2,4	2,6

1. Landu gabeko elikagaiarik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri.
Iturria: EIN

Europako KPIri buruzko azken datuek erakusten dutenez, adierazle horrek gora egin du aztertutako herrialde guztietan. Nolanahi ere, bai Eurogunea (+% 2,2) bai EB-27 (% 2,6) % 2ko langaren gainera daude, eta EB-27ren kasuan % 3tik hurbil dago. Inflazioaren igoera hori herrialde hauen igoeraren ondorio izan da: Espainia (+% 0,7), Alemania (+% 0,4), Danimarka (+% 0,4) eta, neurri txikiagoan, Suedia (+% 0,3), Frantzia (+% 0,2) eta Herbehereak (+% 0,2).

Azpiko inflazioak, ordea, bilakaera desberdina izan du herrialde batetik bestera: Suedian (-% 0,7), Frantzia (-% 0,1) eta Herbehereetan (-% 0,1) KPI jaitsi egin da, baina gainerako herrialdeetan igo egin da.

Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak aldaketarik gabe mantendu ditu interes-tasak azken berrikuspenean; hala, gordailutzeko erraztasunari aplikatu beharreko interes-tasa % 2,0 izango da, finantzaketa-eragiketa nagusia % 2,15 eta kreditu-erraztasun marjinala % 2,40. Europako Banku Zentralak bere erabakia honela justifikatu du: "Inflazio orokorra, batez beste, % 2,1ean kokatuko da 2025ean, % 1,7an 2026an eta % 1,9an 2027an. Halaber, inflazioa, energia eta elikagaiak kenduta, batez beste % 2,4an kokatuko da 2025ean, % 1,9an 2026an eta % 1,8an 2027an. Proiekzioen arabera, ekonomiaren hazkundera % 1,2koa izango litzateke 2025ean, hau da, ekainean aurreikusitako % 0,9ko hazkunderaren aldean, goranzko berrikuspena. 2026rako hazkunde-proiekzioa pixka bat txikiagoa da orain, % 1,0koa; 2027rako proiekzioa, berriz, aldaketarik gabe mantentzen da, % 1,3koa".

EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. 2025eko iraila


Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	urte arteko tasa		Diferentzia / Ekai-25 (ehuneko puntuak)	
	KPI Orokorra ¹	Azpiko KPI ²	KPI Orokorra	Azpiko KPI
Eurogunea	2,2	2,4	0,2	0,0
Alemania	2,4	2,7	0,4	0,1
Frantzia	1,1	1,5	0,2	-0,1
Espainia	3,0	2,5	0,7	0,3
Italia	1,8	2,2	0,0	0,1
Herbehereak	3,0	2,8	0,2	-0,1
Danimarka	2,2	2,2	0,4	0,3
Suedia	3,2	2,7	0,3	-0,7
EB-27	2,6	2,7	0,3	0,1

1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagaiarik eta produktu energetikorik gabeko KPI
Iturria: Eurostat

Hala eta guztiz ere, NDFk adierazi duenez, "inflazioa epe ertainera % 2ko helburuan egonkortzeko erabakia du, eta datuen arabera ikuspegia aplikatuko du, erabakiak bilera bakoitzean hartzen direlarik, diru-politikaren norabide egokia zehazteko. Bereziki, Gobernu Kontseiluak interes-tasei buruz hartzen dituen erabakiak inflazio-perspektiben eta horiek jasan beharreko arriskuen balorazioan oinarrituko dira, datu ekonomiko eta finantzario berriak, azpiko inflazioaren dinamika eta diru-politikaren transmisioaren intentsitatea aintzat hartuta. Gobernu Kontseiluak ez du alde zuzenik inolako konpromisorik hartuko tasa jakin batzuen bilakaeran".

Euriborra, 12 hilabetera (%)



Iturria: Espainiako Bankua


EAEko BPGd

Hirugarren hiruhilekoko aurrerapenaren datuen¹¹ arabera, EAEko ekonomia % 2,2 eta % 0,4 hazi zen, urte arteko eta hiruhileko arteko tasetan, hurrenez hurren. Kopuru horiek urteko ibilbide positiboa finkatzen dute, kontuan izanik lehenengo hiru hiruhilekoetan % 2ko muga gainditzen dutela. Horrek Bizkaiko ekonomiaren hazkundera urteko helburura hurbiltzen du¹², % 2,2 ingurukoa baita. Izan ere, azken bi hiruhilekoetan helburu hori lortu da.

EAEko BPGd-a % 2,2 hazi da bigarren hiruhilekoan

EUSTATEk adierazitakoaren arabera, "Aurrerapen hau egiteko unean eskura dagoen egoeraren inguruko informazio ekonomikoak adierazten du urteko hirugarren hiruhileko honetan izandako urtetik urterako hazkunderaren oinarri nagusia zerbitzuen sektorearen eta eraikuntzaren sektorearen bilakaera izan dela".

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Bigarren hiruhilekoko informazioaren arabera, EAEko jardura ekonomikoa % 2,2 eta % 0,5 hazi da urtetik urterako eta hiruhileko arteko tasan¹³, eta etengabeko hobekuntzaren profila izan du 2024ko hirugarren hiruhilekotik (2024ko hirugarren hiruhilekotik 2025eko bigarren hiruhilekora, +% 2,0, +% 2,1, +% 2,2 eta +% 2,2 urte arteko tasan), zerbitzuen sektorearen dinamismoaren ondorioz, hiruhileko bakoitzean gutxienez 2,5 puntu hobetu baita. Zehazki, 2025eko bigarren hiruhilekoan, zerbitzu-sektoreari lotutako jardura ekonomikoak % 2,8ko gehikuntza izan du; hazkunde hori eta eraikuntza (+% 3,1) erabakigarriak izan dira ekonomia

¹¹ Irailaren 19an argitaratuak. Hirugarren hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak abenduaren 3an argitaratuko dira.

¹² Ekonomia Zuzendaritzak, hiru hilean behingo aurreikuspenetan (2025eko iraila), iragarri zuen 2025erako urte batetik bestera % 2,2 haziko zela. Helburu hori egingarria dirudi, Eustatek argitaratutako datuen sekuentzia ikusita (+% 2,2, urtetik urterako tasan, hiruhileko bakoitzerako).

¹³ Hiruhileroko Kontuen Aurrerapenean (apirilaren 16an) jasotako hiruhileko eta urte arteko tasak hamarren bat hobetu dira.

osoaren emaitzan, eta industriaren eta energiaren egonkortasuna (+% 0,1) eta lehenengo sektorearen beherakada (-% 0,4) konpentsatzen dituzte.

EAEren ekonomia-portaera ona enpleguari buruzko datuetan ikus daiteke; izan ere, hazkunde-profilari eutsi diote, eta ondoz ondoko hamazazpi hiruhilekotan hobetu dira (2021eko laugarren hiruhilekotik). Zehazki, urteko bigarren hiruhilekoan berriro erregistratu zen enpleguaren maximo historikoa, eta 997.445 lanpostura iritsi zen, lanaldi osoko baliokidetzan; horrek esan nahi du urte batetik bestera % 1,4 handitu dela, eta 14.035 lanpostu gehiago daudela orain duela urtebete baino.

Enplegu-zifrek hobera egiten jarraitzen dute, eta dagoeneko ia milioi bat langile daude LOBen

Azkenik, enpleguaren bilakaera eta osaera aztertuta, ikusten da zerbitzu-sektorearen dinamismoa erabakigarria dela EAE osoko emaitzan (+% 1,8 urte batetik bestera; EAEko enplegu guztiaren % 72,4). Eraikuntzarekin lotutako enpleguak ere gora egin du (+% 1,9 urte artean; enplegu osoaren % 6,1), baita industria eta energiarenak ere, baina gutxiago (+% 0,2; enplegu osoaren % 20,3). Lehenengo sektoreak, berriz, enplegua galdu du urteko bigarren hiruhilekoan (-% 0,1; enplegu osoaren % 1,2).

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	II	2024 III	IV	2025 I	II	
BPGd-a	2,4	2,1	2,0	2,1	2,2	
Lehenengo sektorea	2,8	1,0	2,2	0,6	-0,4	
Industria eta energia	1,0	0,8	0,5	0,4	0,1	
Eraikuntza	1,0	0,9	2,2	1,7	3,1	
Zerbitzuak	2,5	2,5	2,7	2,7	2,8	
LOB Enplegua	1,6	1,4	1,5	1,5	1,4	

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

LAN-MERKATUA


Afiliazioa

Urteko hirugarren hiruhilekoan (iraileko datua), Bilbok 197.194 afiliaturekin itxi du urtea, hau da, urtetik urtera % 2,1 gehiago (duela urtebete baino 3.976 afiliatu gehiago). Hala ere, hiruhileko arteko datuei dagokienez, bilakaera negatiboa izan da, eta % 0,1 egin du behera ekaineko afiliazio-zifrarekin alderatuta (109 afiliatu gutxiago).

Afiliazioa % 2,1 handitu da urtetik urtera

Irailera arte metatutako datuak erakusten du batez besteko afiliazioa 2024koa baino % 2,5 handiagoa dela, eta horrek urte amaierako emaitza hobea ekarriko lukeela, aurreko urteetan baino, eta Bilbon 200.000 afiliatu izatera irits litekeela.

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliazioaren bilakaera ona Araubide Orokorrera atxikitako afiliazioaren gorakadari zor zaio (+% 2,5 urte batetik bestera; +4.174 afiliazio), Langile Autonomoen Araubide Berezian (-% 0,2; -53 pertsona) eta Etxeko Langileen Araubide Berezian (-% 2,5; -154 pertsona) erregistratutako beherakadak konpentsatzen baititu. Hiruhilekoko bilakaerari dagokionez, Araubide Orokorreko afiliazioak bere horretan jarraitzen du ekaineko zifrarekiko (% 0,0), eta enplegu autonomoak (-% 0,4) eta etxeko enpleguak (-% 0,5) afiliazioa galdu dute azken hiruhilekoan.

Araubide Orokorra erabakigarria da afiliazioa hobetzeko

Alde horretatik, araubide-motaren araberako ekarpena mantendu egin da, eta Araubide Orokorrari atxikitako afiliazioak guztizko afiliazioaren % 85,4 ematen du; Langile Autonomoen Araubide Berezian % 11,1 eman du, eta Etxeko Langileen Araubideak (% 3,1) eta gainerako erregimenek¹⁴ (% 0,3) askoz ekarpen txikiagoak egin dituzte.

¹⁴ Nekazaritza-araubidea eta itsasoko araubidea barne.

Afiliazioa, araubideen arabera

	2025.09	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko ekaina)	Urte arteko Δ % (2024ko iraila)
GUZTIRA	197.194	-0,1	2,1
Araubide orokorra	168.464	0,0	2,5
Autonomoak	21.868	-0,4	-0,2
Etxeko langileak	6.095	-0,5	-2,5
Beste batzuk	767	8,2	1,2

Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	2025.09	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko ekaina)	Urte arteko Δ % (2024ko iraila)
Lehenengo sektorea	297	22,7	6,1
Industria eta energia	9.301	0,8	2,6
Industria	5.533	1,2	6,4
Energia	1.137	0,5	-1,3
Hondakinak eta ura	2.631	-0,1	-3,1
Eraikuntza	9.408	-0,9	1,3
Eraikuntza	3.300	-3,1	0,1
Eraikuntza-laguntzailea	6.108	0,3	2,0
Zerbitzuak	178.180	-0,1	2,1
Merkataritza	20.124	-1,3	-0,3
Garraioa eta biltegiatzea	10.174	0,5	7,4
Ostalaritza	11.487	3,9	2,5
Ostatua	2.062	-0,9	2,4
Informazioa eta komunikazioak	10.601	-4,8	0,1
Finantza eta aseguruak	7.795	0,1	2,8
Higiezin-jarduerak	1.211	-1,1	-0,2
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	15.650	0,7	2,7
Administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	19.141	2,9	2,3
Administrazio publikoa	11.926	-2,2	0,1
Hezkuntza	25.015	1,4	3,0
Osasuna	15.762	0,3	1,7
Gizarte-zerbitzuak	9.896	-3,2	3,2
Aisialdia eta kultura	4.275	1,3	6,1
Etxeko langileak	6.539	-0,4	-2,4
Beste zerbitzu batzuk	6.522	-4,0	2,8

Oharra: Kopuru osora arteko aldea sektore-esleipena zehaztu gabe duten afiliazioei dagokie.

Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliazioaren hiruhileko arteko bilakaera jarduera-adarren arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektorean izandako atzerakada txikia (-% 0,1) erabakigarria izan dela afiliazio osoan duen pisu espezifikoagatik. Zehazki, daturik okerrenak informazioan eta komunikazioetan (-% 4,8, 530 afiliazio gutxiago), gizarte-zerbitzuetan (-% 3,2, 330 afiliazio gutxiago) eta beste zerbitzu batzuetan (-% 4,0, 269 afiliazio gutxiago) izan dira. Aldiz, ostalaritzan (+% 3,9, 426 afiliazio gehiago) eta jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrietan (% 2,9 gehiago, 543 afiliatu gehiago) afiliazioak gora egin du. Eraikuntzak, bestalde, beherantz egin du (- %3,1, 107 afiliazio gutxiago), eta industriako afiliazioak hobera egin du (+% 1,2; 68 afiliazio gehiago).

Zerbitzuen sektoreko
afiliazioaren hiruhilekoen
arteko atzerakada (urtarokoa)

Urte arteko bilakaerari dagokionez, afiliazioaren hobekuntza da nagusi. Hala, nabarmentzekoak dira garraioan eta biltegiatzean izandako hazkundeak (+% 7,4), aisialdi- eta kultura-jardueretan (+% 6,1) eta industrian izandakoa (+% 6,4), eta, neurri txikiagoan, baita hezkuntzan (+% 3,0), administrazio-jardueretan (+% 2,3) eta jarduera profesional zientifiko-teknikoetan izandakoa ere (+% 2,7). Hala ere, bost jardueratan afiliazioa galdu dute. Hau da, hondakinekin eta urarekin (-% 3,1), merkataritzarekin (-% 0,3), engeriarekin (-% 1,3), higiezinaren jarduerekin (-% 0,2) eta etxeko enpleguarekin (-% 2,4) lotutako jarduerak.

Urte arteko hazkunde
partekatua

Benchmarking-a. Afiliazioa

	2025.09	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko martxoa)	Urte arteko Δ % (2025eko ekaina)
Madril	2.405.949	0,5	2,9
Bartzelona	1.248.457	0,1	1,7
Valentzia	472.820	0,6	4,2
Sevilla	416.949	0,8	3,1
Zaragoza	329.665	2,3	2,6
G-5 batez bestekoa	--	0,9	2,9
BILBO	197.194	-0,1	2,1
Gasteiz	129.907	0,6	1,3
Donostia	127.273	-0,2	1,1
Iruñea	118.350	0,3	2,0
G-3 batez bestekoa	--	0,2	1,5
G-9 batez bestekoa	--	0,5	2,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantzak

Erreferentziatzeko hiriburuak joera bera dute, eta guztiek erakusten dute urte batetik bestera gora egin dutela afiliazioan. Zehazki, Estatuko hiriburuetakako afiliazioa (G-5) % 2,9 handitu da urtetik urtera batez beste, eta horri, neurri handiagoan edo txikiagoan, aztertutako bost hiriburuak egin diote ekarpena: Madril (+% 2,9), Bartzelona (+% 1,7), Valentzia (+% 4,2), Sevilla (+% 3,1) eta Zaragoza (+% 2,6). Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetakako afiliazioak (G-3) gora egin du (+% 1,5), eta Iruñea da, Bilboren ostean, bilakaerarik onena izan duena (+% 2,0); jarraian, Gasteiz (+% 1,3) eta Donostia (+ % 1,1) daude.

Erreferentzia-hiriburu
guztietako enpleguaren
urtetik urterako hazkundeak

Kontratuak

2025eko hirugarren hiruhilekoan, 31.721 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean, eta hiruhileko arteko (+% 11,2) eta urte arteko (+% 8,7) igoera nabarmena izan da. Aldi baterako kontratazioak bi alderaketa horietan hobera egin du (+% 8,8 eta +% 24,9, hiruhileko arteko eta urte arteko tasan), eta kontratazio mugagabeak, berriz, hiruhileko arteko eta urte arteko tasan bakarrik egin du gora (+% 17,1 eta -% 17,7, hiruhileko eta urte arteko tasan). Hala, kontratu berriak aldi baterakoak dira gehienbat (guztizkoaren % 71,0), eta kontratu mugagabeen pisua (% 29,0) azken biurtekoaren balioen azpitik dago¹⁵.

31.721 kontratu berri erregistratu dira Bilboko bizilagunen artean

Hiruhileko arteko kontratazioen hobekuntza nabari da bai gizonezkoen kontratazioan (+% 13,0), bai emakumezkoen kontratazioan (+% 9,5), bai adin-talde guztietan; hazkunderik handienak gazteenen eta zaharrenen artean izan dira (+% 14,7 bi kasuetan). Sektoreka, zerbitzuen sektorean kontratazioa hobetu da (+% 12,7), ondoren industrian (+% 5,4) eta lehenengo sektorean (+% 30,1); eraikuntzan, berriz, kontratazioa jaitsi egin da (-% 15,1).

Hiruhileko arteko (+% 11,2) eta urte arteko (+% 8,7) hobekuntza

Hala ere, urtetik urterako hobekuntza (+% 8,7) gehiago oinarritzen da emakumezkoen kontratazioan (+% 10,5) gizonezkoen kontratazioan baino (+% 6,9), eta, gainera, oso esanguratsua da talde gazteenaren gorakada (+% 16,6). Sektoreka, zerbitzuen sektoreak izan du kontratazio berri gehien (% 87,7), eta urte arteko % 9,2ko igoera izan du.

Urtarril-iraileko balantze agregatuak % 1,8ko urte arteko hobekuntza berresten du, 1.491 kontratu gehiago izan baitira (86.016 kontratu, aurtengo metatuan). Itxiera partzial horren arabera, emaitza ona izango da 2025erako, kontuan izanik laugarren hiruhilekoa dela (urtaroko arrazoiengatik) kontratazio berri gehien izan ohi dituen.

Metatuan balantze positiboa izan du (+% 1,8, urte arteko tasan)

Kontratuak

	III.2025			I-III. 2025	
	Zk.	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	Zk.	Δ % urte artean
GUZTIRA	31.721	11,2	8,7	86.016	1,8
Emakumeak	16.049	9,5	10,5	44.179	6,4
Gizonak	15.672	13,0	6,9	41.837	-2,7
16-24 urte bitartekoak	9.225	14,7	16,6	22.980	6,7
25-34 urte bitartekoak	8.741	7,4	7,7	24.652	3,7
35-44 urte bitartekoak	5.597	7,2	4,0	15.920	-2,5
45 urte eta gehiagokoak	8.158	14,7	5,0	22.464	-1,8
Mugagabeak	9.185	17,1	-17,7	24.694	-20,0
Aldi baterako kontratuak	22.510	8,8	24,9	61.296	14,3
Lehenengo sektorea	493	30,1	35,4	1.248	17,0
Industria eta energia	2.422	5,4	2,8	6.730	3,4
Eraikuntza	995	-15,1	0,3	3.211	-1,0
Zerbitzuak	27.811	12,7	9,2	74.823	1,5

Bilbon bizi den pertsonen erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: Lanbide

¹⁵ 2021eko abenduaren 28an onartutako lan-erreforma indarrean sartzearekin batera, kontratazio mugagabearen ratioa (urtarrila-iraila) % 29,1, % 39,4 eta % 36,5koa izan da, 2022, 2023 eta 2024an.


Erregistratutako langabezia

Irailean, 20.927 langabe zeuden erregistratuta Bilbon, hau da, urtetik urtera % 1,8 gutxiago (392 langabe gutxiago). Hala ere, hiruhileko batetik bestera erregistratutako langabeziak gora egin du (+% 2,4, 484 langabe gehiago), eta datu hori tentu handiz hartu behar da, bigarren hiruhilekoa oso aldekoa izan baitzen (20.667 langabe ekainean). Izan ere, urtean batez beste 21.011 langabetu erregistratu dira, eta urte batetik bestera % 2,2 egin du behera, beraz, erregistratutako langabeziaren beheranzko joera berretsi da.

Hirugarren hiruhilekoan, langabeziak behera egin du (% 1,8, urte arteko tasan)

Urte batetik besterako beherakada, hirugarren hiruhilekoan, gizonen (-% 2,9), emakumeen (-% 1,0) eta adin-talde guztien (-% 2,9, -% 3,3, -% 1,0 eta -% 5,4, gazteenetik zaharreneira, hurrenez hurren) artean gertatu da. Aldiz, emaitza aldatu egiten da denboraren arabera langabezian: 6 hilabete baino gutxiago daramatenak eta urtebete eta 2 urte bitartean daramatenak jaitsi egiten dira (-% 1,7 eta -% 9,5, urtetik urtera); aldiz, igo egiten dira 6 hilabete eta urtebete bitartean daramatenak eta 2 eta 3 urte bitartekoak (+% 5,8 eta +% 5,1, hurrenez hurren). Azkenik, langabezia-prestaziorik jasotzen ez dutenen kopuruak gora egin du (+% 1,7, urte artekoa), eta prestazioak jasotzen dituztenen kopuruak behera egin du (-% 11,2, urte artekoa).

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Lehen aipatu denez, langabeziaren hiruhilekoen arteko bilakaera negatiboa izan da (+% 2,4), eta emakumeen jarduera okerragoa izan da (+% 2,9; +336 emakume langabe) gizonena baino (+% 1,7; +148 gizon langabe). Adinari dagokionez, hazkunderik handienak bi segmentu gazteenetan izan dira: 16 eta 24 urte bitartean eta 25 eta 34 urte bitartean (+% 4,3 eta +% 6,1). Azkenik, eta langabezian emandako denboraren arabera, urte batetik bi urtera bitarteko langabezian daudenek soilik dute beheranzko desbideratzea (-% 1,0, hiruhileko artean); aldiz, 6 hilabetera bitarteko langabezia-taldea da bilakaerarik okerrera izan duena (+% 6,7, hiruhileko artean).

Erregistratutako langabezia

	2025.09	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko ekaina)	Urte arteko Δ % (2024ko iraila)
GUZTIRA	20.927	2,4	-1,8
Emakumeak	11.971	2,9	-1,0
Gizonak	8.956	1,7	-2,9
16-24 urte bitartekoak	1.846	4,3	-3,3
25-34 urte bitartekoak	3.486	6,1	-1,0
35-44 urte bitartekoak	3.883	-0,1	-5,4
45 urte eta gehiagokoak	11.712	1,8	-0,6
6 hilabetera arte	6.854	6,7	-1,7
6 hilabete eta urtebete bitartean	3.032	1,6	5,8
Urte 1 eta 2 urte bitartean	3.012	-1,0	-9,5
2 eta 3 urte bitartean	1.840	1,9	5,1
3 urte baino gehiago	6.189	0,0	-3,3
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.673	2,6	1,7

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Erregistratutako langabeziaren urte arteko portaera ona erreferentziazko estatuko hiriburu guztiek partekatzen dute, Bartzelonak izan ezik (+% 0,3). Gainerakoei dagokienez, jaitsierak Madrilgo jaitsiera txikienaren (-% 4,3) eta Valentziako jaitsiera handienaren (-% 7,1) artean daude, eta batz besteko jaitsiera (G-5) % 4,4koa da. Euskal hiriburuei dagokienez, Iruñeak izan du murrizketarik handiena (-% 6,4), ondoren Donostiak (-% 2,7) eta, azkenik, Gasteizek igoera txiki bat izan du langabezian (+% 0,9). Batez besteko emaitza (G-3) haxe izan da: erregistratutako langabeziak urte batetik bestera % 2,7 egin du behera.

Benchmarking-a. Erregistratutako langabezia

	2025.09	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko ekaina)	Urte arteko Δ % (2024ko iraila)
Madril	132.823	1,0	-4,3
Bartzelona	62.541	1,7	0,3
Valentzia	42.661	0,4	-7,1
Sevilla	53.723	0,2	-5,9
Zaragoza	27.801	0,4	-5,2
G-5 batez bestekoa	--	0,7	-4,4
BILBO	20.927	2,4	-1,8
Gasteiz	14.153	1,3	0,9
Donostia	6.441	3,3	-2,7
Iruñea	9.584	2,1	-6,4
G-3 batez bestekoa	--	2,3	-2,7
G-9 batez bestekoa	--	1,4	-3,6


G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE

Biztanleria aktiboa

Kalkuluen arabera, Bilbon bizi den biztanleria aktiboa 175,8 mila pertsonakoa da 2025eko hirugarren hiruhilekoan, urte batetik bestera % 0,5eko jaitsiera txikia izan ondoren (800 pertsona aktibo gutxiago). Biztanleria landunak gora egin du (+% 1,9 urtetik urtera; +3,0 mila pertsona); langabeak, berriz, nabarmen jaitsi dira (-%25,3; -3,8 mila pertsona).

Urteko batez besteko ikuspegi bat baliagarriagoa da Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera Bilboko lan-jarduerari buruzko adierazleen bilakaera ikusteko: 2025eko behin-behineko balantzea positiboa da, biztanleria landunaren hobekuntza finkatu baita (+% 8,7) eta, aldi berean, biztanleria langabe egoiliarra murriztu (-% 4,3). Emaita horiek bat datoz afiliazioaren informazioarekin (Gizarte Segurantzak) eta langabezia erregistratuarekin (SEPE-Lanbide).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea



Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	III.2025	Δ %		Batez bestekoa (I-III)		Δ %
		Hiruhileko artean	Urte artean	2024	2025	(urte artean)r
Biztanleria aktiboa (milakotan)	175,8	-7,9	-0,5	172,7	185,6	7,5
Biztanleria landuna (milakotan)	164,6	-7,5	1,9	156,5	170,2	8,7
Nekazaritza	0,0	--	--	--	--	--
Industria	17,2	18,6	4,2	15,6	16,6	6,4
Eraikuntza	8,2	-38,8	-21,9	8,1	10,9	34,7
Zerbitzuak	139,3	-7,1	3,4	132,7	142,7	7,5
Langabeak (milakotan)	11,2	-13,2	-25,3	16,2	15,5	-4,3
Enplegu-tasa (%)	54,69	-0,4	-2,2	51,82	54,69	2,9
Emakumeak	50,75	3,5	1,1	48,89	52,61	3,7
Gizonak	59,11	-4,3	-5,4	55,08	56,99	1,9
Langabezia-tasa (%)	6,36	-0,4	-2,2	9,38	8,28	-1,1
Emakumeak	9,32	3,5	1,1	7,08	8,40	1,3
Gizonak	3,32	-4,3	-5,4	11,50	8,17	-3,3

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntuetan.

Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

MERKATARITZA

Bigarren hiruhilekoko datuen arabera, merkataritza-sektorearen salmentek gora egiten jarraitzen dute (+% 0,9, prezio arruntetan), eta, hala, bosgarren hiruhileko positiboa da jarraian. Emaizta horri dagokionez, txikizkako merkataritzaren salmentak (+% 4,6) eta ibilgailuen salmentak eta konponketak (+% 2,4) onak izan dira, barne-kontsumoaren trakzio-ahalmenaren ondorioz. Aldiz, handizkako merkataritzak emaitza negatiboa izan du (-% 1,2), joera aldatzekoarekin. Urteko lehenengo sei hilekoaren balantze orokorra da merkataritza-sektoreak dinamismoari eusten diola eta salmentak hobetu dituela.

Merkataritza-sektorean salmentak igo egin dira (+% 0,9)

Hala ere, hiruhilekoaren balantzea, prezio konstanteetan, pixka bat negatiboa da (-% 0,1), eta tentuz ibili behar da emaitza horri aurre egiteko, handizkako sektorean izandako atzerakadaren ondorioz (-% 2,6), ez baitute konpentsatzen txikizkako jardueraren bultzada (+% 3,2), ezta ibilgailuen salmenta eta konponketarena ere (+% 2,7).

Hala, azken hiruhilekoetako profilak, termino arrunt edo konstanteetan, merkataritza-sektoreko salmenten hobekuntza-erritmoaren nolabaiteko moteltzea adierazten du, eta hori barnean hartzen dituen segmentuen arabera zehaztu behar da. Hala eta guztiz ere, lehenengo hiruhilekoan sektoreko enpleguaren zati bat galdu ondoren, bigarren hiruhilekoan urte hasieran galdutako enplegua berreskuratzea lortu da (+% 1,3) (-% 0,4). Hala, sektoreko enpleguaren hazkunde-profila finkatu egin da, handitzen ari baita 2021eko lehenengo hiruhilekotik.

Eta sektoreko enplegua berreskuratzen ari da (+% 1,3)

Merkataritza

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	IV.2024	I.2025	II.2025	IV.2024	I.2025	II.2025
Merkataritza-salmentak guztira	3,0	2,2	0,9	2,8	0,3	-0,1
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	9,1	0,7	2,4	7,8	-0,6	2,7
Handizkako merkataritza	1,0	1,7	-1,2	1,4	-0,6	-2,6
Txikizkako merkataritza *	5,2	3,8	4,6	4,1	2,3	3,2
Elikadura	5,5	5,0	3,2	4,5	3,8	2,0
Gainerako produktuak	4,9	2,5	6,2	3,8	0,6	4,6
Landunen indizea	0,5	-0,4	1,3	--	--	--

*Zerbitzugunerik gabeko indize orokorra. Bizkaiko datuak, egutegi-ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaro- efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria. Iturria: Eustat

Hirugarren hiruhilekora arte eguneratutako datuek erakusten dutenez, Bizkaiko saltoki handien salmentek berriro egin dute gora (+% 3,5 eta +% 1,0, prezio arrunt eta konstanteetan), eta sektorea egoera onean dagoela berresten dute. Dinamismo hori elikagai-segmentuaren (+% 3,7 eta +% 0,6, prezio arrunt eta konstanteetan) eta elikagai ez diren segmentuaren (+% 3,0 eta +% 1,5, prezio arrunt eta konstanteetan) jokabide onaren emaitza da.

Bizkaiko merkataritza-gune handien salmentek eta enpleguak gora egin dute

Testuinguru horretan, azalera handiei lotutako enpleguak ere hobera egin du, eta aurreko hiruhilekoko urte arteko hazkundera errepikatu da (+% 2,0).

Merkataritza-gune handiak

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	I.25	II.25	III.25	I.25	II.25	III.25
Salmentak	2,6	5,8	3,5	-0,1	3,2	1,0
Elikadura	2,7	5,6	3,7	-0,8	2,2	0,6
Gainerako produktuak	2,6	6,1	3,0	1,1	4,8	1,5
Landunen indizea	0,4	2,0	2,0	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi-ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaro-efektua kenduta. 2021eko oinarria. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak
Iturria: Eustat

Hirugarren hiruhilekoan 3.895 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian, 2025eko bigarren hiruhilekoan baino zertxobait gutxiago (-% 9,2). Baina, hala eta guztiz ere, urteko balantze metatua 11.581 ibilgailura iritsi da, hau da, urtetik urtera % 18,8 hazi da. Gainera, ibilgailu partikularren segmentuaren dinamismoa nabarmendu behar da, gorakada nabarmena izan baitu (+% 20,7), eta 8.216 ibilgailu matrikulatu baitira; lurraldean matrikulatutako lau ibilgailu berritik ia hiru (% 71,0). Halaber, enpresen eta beste batzuen segmentuak ere hobekuntza nabarmena izan du matrikulazioan (+% 14,3).

11.581 ibilgailu matrikulatu dira urtean guztira (+% 18,8)

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako "Emisio Gutxiagoko Ibilgailuak" laguntza-programa indarrean sartzeak (apirilaren 1ean) eragina izaten jarraitzen du, eta horren erakusgarri da hilez hileko urte arteko hazkundearen hobekuntza (+% 39,4, +% 16,3 eta +% 23,6, uztailetik irailera), baita hirugarren hiruhilekoko matrikulazio berrien hileko batez bestekoa ere (1.298 ibilgailu), lehenengo hiruhilekoan lortutakoa baino % 27,2 handiagoa (1.020 ibilgailu). Hobekuntza hori, batez ere, partikularren segmentuan gertatu da (+737 ibilgailu); enpresa-taldeak eta beste batzuek, berriz, igoera txikiagoa izan dute (+97 ibilgailu).

Azken batean, eskura dauden datuek adierazten dute jarduera horren emaitzak hobetu egin direla. Hainbat faktorek oztopatu zuten jarduera hori, hala nola motor-mota aukeratzeko zalantzek, bigarren eskuko merkatuen dinamismoak (oso lehiakorak prezioetan) edo mugikortasun jasangarriari buruzko argitasunik ezak (erosteko laguntzen jarraitutasunetik edo ibilgailuak aldatzeko helburua betetzetik, ibilgailu elektrikoek garrantzi handiagoa baitute).

Ibilgailuen matrikulazioa

	Zk.	III.2025		I-III.2025		Δ % urte artean
		Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	2024	2025	
Guztira	3.895	-9,2	27,2	9.752	11.581	18,8
Partikularrak	2.860	-4,3	34,7	6.810	8.219	20,7
Enpresak eta bestelakoak	1.035	-20,5	10,3	2.942	3.362	14,3

Bizkaiko datuak.
Iturria: Anfac

Hiriko merkataritza-sektoreari lotutako enpleguari dagokionez, Gizarte Segurantzako afiliazio-datuen arabera, irailean 20.124 pertsona afiliatu ziren sektorean, eta horrek urte arteko jaitsiera txiki bat adierazten du (-% 0,3), eta hiruileko arteko kopuruan areagotu egin da (-% 1,3). Afiliazioak behera egin arren, sektoreko enpleguak 20.000 afiliatutik gora jarraitzen du, eta zifra hori gainditzen ari da 2024ko bigarren hiruhilekotik.

Bilboko merkataritza-sektoreari atxikitako afiliazioaren beherakada txikia

Jarduera-azpisektorearen arabera bilakaerari erreparatuz gero, Bilboko merkataritza-sektoreko lau enplegutik hiru txikizkako merkataritzari atxikita daudela ikus daiteke (14.898 afiliazio; guztizkoaren % 74). Azken urtean enplegua irabazi duen segmentu bakarra da (+% 0,8), baina ez du konpentsatzen ibilgailuen salmentagatik eta konponketagatik izandako afiliazio-galera (-% 3,0), ezta handizkako merkataritzarena ere (-% 3,3). Hiruhileko arteko tasan, ibilgailuen salmenta eta konponketa da afiliatu gehien irabazi dituen bakarra (+% 0,3), handizkako merkataritzaren (-% 0,4) eta txikizkako merkataritzaren (-% 1,6) jaitsieren aldean. Azkenik, enplegu autonomoak Bilboko sektore-afiliazioaren % 24,7 sortzen du.

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	2025.03	2025.06	2025.09	2025.09; Δ %	
				hiruhileko artean	urte artean
Afiliatuak¹	20.171	20.384	20.124	-1,3	-0,3
Handizkako merkataritza	4.165	4.140	4.124	-0,4	-3,3
Txikizkako merkataritza	14.910	15.145	14.898	-1,6	0,8
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.096	1.099	1.102	0,3	-3,0
Enpresak²	2.350	2.350	2.339	-0,5	-0,3
Handizkako merkataritza	571	567	565	-0,4	-2,9
Txikizkako merkataritza	1.625	1.630	1.626	-0,2	1,5
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	154	153	148	-3,3	-8,1
Soldatapeko batez besteko enplegua³	6,4	6,5	6,5	--	--
Enplegu autonomoaren %	25,325,3	24,6	24,7	--	--

1. Enplegua, guztira (arabide guztiei dagokiena). 2. Kotizazio-kontuak, arabide orokorreko afiliatutakoak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez. Iturria: GSDN

Bestalde, 2.339 enpresak osatzen dute Bilboko merkataritza-sektorea, ekaineko datua (-% 0,3) baino zertxobait gutxiago. Azpisektoreka, txikizkako merkataritza da enpresak irabazi dituen bakarra (+% 1,5), handizkako merkataritzaren eta enpresa-ehuna galdu duten ibilgailuen salmenta eta konponketaren aldean (-% 2,9 eta -% 8,1, hurrenez hurren). Edonola ere, Bilboko merkataritzako ekoizpen-sarearen bi heren baino gehiago txikizkako merkataritzari atxikita daude (1.626 enpresa), eta merkataritza-sektorearen batez besteko enpresa-tamaina 6,5 soldatapeko langilekoa da enpresa bakoitzeko.

Sektoreko enpresen kopurua pixka bat jaitsi da

TURISMOA

Hirugarren hiruhilekoak (uztailetik irailera) Bilboko hotel-jarduerak izandako hobekuntza nabarmena berresten du: 368.625 bidaiari (+% 7,1 urte batetik bestera) eta 746.391 ostatu-gau (+% 5,8). Zifra horiek maximo historikoetan kokatzen dute udaldia.

Bidaiarien (+% 7,1) eta ostatu-gauen (+% 5,8) kopuruak gora egin du udan

Atzerriko bidaiariak dinamismo handia dute (+% 8,6); estatuko segmentuak, berriz, hazkunde apalagoa izan du (+% 4,5). Eraitza hori errepikatu egiten da ostatu-gauetan (+% 8,6 eta +% 1,1). Hala, nazioarteko osagaiak bidaiarien % 63,0 eta ostatu-gauen % 64,4 hartzen ditu, eta 2,08 eguneko batez besteko egonaldia egin dute, estatuko segmentuak baino zertxobait gehiago (1,93 egun).

Dinamismo handia atzerriko segmentuan (+% 8,6, bidaiari eta ostatu-gauetan)

Behin-behineko balantzeak, hiru hiruhileko osoekin, 2024an baino positiboagoa izango den ekitaldi itxiera aurreikusten du. Momentuz, ia milioi bat bidaiari eta bi milioi gau igaro dituzte bidaiariak; % 9,3 eta % 8,6 igo dira, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da atzerriko segmentuak izan duen hazkunde handia (+% 10,5 eta +% 10,8, bidaiari eta ostatu-gauet dagokienez). Azken hiru hiruhilekoetan, Bilboko hotel-establezimenduetan hartutako bidaiarien eta ostatu-gauen guztizkoaren % 55,1 eta % 58,9 izan dira.

Behin-behineko balantzearen arabera, % 9,3 eta % 8,6 handitu dira bidaiari-kopurua eta ostatu-gauak


Turismoa

	III.2025			I-III.2025		
	Zk.	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	Zk.	Δ % urte artean	
Ostatu-gauak	746.391	15,5	5,8	1.830.630	8,6	
3 izar eta gehiagoko hotelak	561.092	17,2	4,7	1.371.142	6,7	
3 izar baino gutxiagoko hotelak eta ostatuak	185.299	10,4	9,2	459.488	14,6	
Estatukoak	262.598	9,6	1,1	752.142	5,8	
Atzerritarrak	483.793	18,9	8,6	1.078.488	10,5	
Bidaiariak	368.625	9,4	7,1	942.894	9,3	
Estatukoak	136.335	-1,9	4,5	422.981	7,5	
Atzerritarrak	232.290	17,4	8,6	519.913	10,8	
Batez besteko egonaldia	2,02	--	--	1,94	--	

Batez besteko egonaldia: ostatu-gauak/bidaiariak (egunak) *Aldakuntza ehuneko puntuetan.
Iturria: Eustat

Hotel-bilakaeraren hileroko azterketak erakusten duenez, uztailean eta abuztuan (urteko jarduerarik handieneko hilabeteak), 122.987 eta 130.684 bidaiari zenbatu ziren, hurrenez hurren (+8.830 eta +5.141, 2024arekin alderatuta), eta irailean, guztira, 114.954 bidaiari izan ziren, eta urte arteko irabazirik handiena izan zen (+10.399). Eredu hori errepikatzen da ostatu-gauetan: 242.100 uztailean (+12.659), 260.625 abuztuan (+13.376) eta 230.290 irailean (+14.953).

Bidaiariak eta ostatu-gauak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

Erreferentzia-hiriburuak konparatuta, Bilbo gainerakoen gainetik dago, taldeko urte arteko bilakaerarik onena izan baitu (+% 5,8) ostatu-gauetan. Estatuko hiriburuak (G-5), oro har, % 0,9ko urte arteko jaitsiera izan dute, eta ostatu-gauak okerrera egin dute Zaragozan (-% 3,6), Valentzian (-% 2,0) eta Bartzelonan (-% 0,6). Sevillak, bestalde, ez du bilakaerarik izan ostatu-gauen bolumenean (% 0); Madrilek, berriz, igoera txiki bat izan du (+% 1,5).

EAEko hiriburuak dagokienez, Donostiak (-% 2,6) eta Gasteizek (-% 4,6) ostatu-gauen beherakada izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; Iruñeak, berriz, gorakada izan du (+% 1,1). Hala eta guztiz ere, euskal hiriburuak batez beste (G-3) % 2,0ko beherakada izan dute urte batetik bestera.

Bilboko datuak erreferentziako hiriburuakoen aldean nabarmentzen dira

Benchmarking-a. Ostatu-gauak

	I.2025	II.2025	III.2025	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean
Madril	4.775.538	5.740.326	5.320.898	-7,3	1,5
Bartzelona	4.580.601	5.828.058	6.140.391	5,4	-0,6
Valentzia	1.025.006	1.299.472	1.452.222	11,8	-2,0
Sevilla	1.541.289	1.788.138	1.582.927	-11,5	0,0
Zaragoza	432.018	547.338	543.466	-0,7	0,5
G-5 batez bestekoa (hiriak)	--	--	--	-0,5	-0,1
BILBO	437.749	646.490	746.391	15,5	5,8
Gasteiz	184.818	225.329	258.103	14,5	-4,6
Donostia	377.519	587.959	679.986	15,7	-2,6
Iruñea	128.385	184.252	210.349	14,2	1,1
G-3 batez bestekoa (hiriak)	--	--	--	14,8	-2,0
G-9 batez bestekoa (hiriak)	--	--	--	5,9	-0,6

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIN

GARRAIOA

Aireko garraioa

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Loiuko aireportuak 2.046.199 bidaiari izan ditu, hau da, urtetik urtera bidaiari-kopurua % 1,4 handitu da eta 28.409 bidaiari gehiago izan ditu. Hala, aurreko urteko zifra gainditzeaz gain, maximo historiko berri bat lortu da. Hala, aireportuaren historian bigarren aldiz, bi milioi bidaiarien muga gainditu da, eta kopuru hori 2024ko hirugarren hiruhilekoan lortu zen (2.017.790 bidaiari). Hala eta guztiz ere, aipatu behar da emaitza horrek eragina izango lukeela sei ibilbide berri gehitu direlako, eta horiek guztiz operatiboak egon direlako urteko hirugarren hiruhilekoan, helmuga ezagunenetako batzuk indartzeaz gain¹⁶.

Loiuko udako jardueraren urte arteko igoera (+% 1,4)

Lehenengo hiru hiruhilekoetako balantze bateratua 5,3 milioi bidaiarirekin itxi da, hau da, urtetik urtera % 3,2 handitu da. Emaitza hori nazioarteko segmentuan oinarritzen da (+% 9,8), estatuko segmentuaren atzerapen arina konpentsatzen baitu (-% 1,6). Hala ere, aireportuko mugimenduaren erdia baino gehiago dagokio segmentu horri (hegaldi komertzialetako bidaiarien % 55). Denbora-tarte horretan 41.241 hegaldi egin dira, eta garraiatutako bidaiari-bolumenak izan duen antzeko hazkundea izan du (+% 3,5).

5,3 milioi bidaiari lehenengo hiru hiruhilekoetan

Aireko garraioa


	III.2025			I-III. 2025		
	Zk.	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	Zk.	Δ % urte artean	
Bidaiariak (kop.)	2.046.199	3,1	1,4	5.342.187	3,2	
Hegaldi komertzialak	2.043.186	3,1	1,4	5.333.974	3,2	
Estatukoak	1.046.197	-2,4	-4,8	2.934.192	-1,6	
Nazioartekoak	996.989	9,5	8,8	2.399.782	9,8	
Hegaldiak (kop.)	15.029	-2,9	0,1	41.241	3,5	

bb: behin-behinekoa
Iturria: Aena

Hileroko azterketaren arabera, 2025ean emaitza hobea izango da 2024an baino, nahiz eta segmentuen arabera lan-karga desberdinak izan. Horrela, bidaiari nazionalak hiru hilabetetan gutxitu egin dira: -22.485, -23.043 eta -7.346 bidaiari uztailean, abuztuan eta irailean. Atzerritik etorritakoen kopurua, berriz, hazi egin da: +26.535, +33.054 eta +20.925 bidaiari uztailean, abuztuan eta irailean.

¹⁶ El Correoko informazioa: <https://www.elcorreo.com/content-local/aena-rutas-desde-el-aeropuerto-de-bilbao-para-el-verano-2025/>

Bidaiariak Loiuko aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren araberako sailkapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Erreferentziazko aireportuekin alderatuz gero, oro har, bidaiari-kopuruaren bilakaera positiboa izan dela ondoriozta daiteke. Estatuko datuei dagokienez, Bartzelona (+% 4,0) dago lehenengo postuan, ondoren Valentzia (+% 3,7) eta Zaragoza (+% 3,2) daude, eta Madril eta Sevillaren bilakaera moderatuagoa da (+% 1,6). Euskal aireportuei dagokienez, nabarmentzekoa da Iruñean (+% 5,0) eta Gasteizen (+% 4,8) izandako jarduera; Donostiako aireportuak, berriz, beherakada bakarra izan du (-% 1,6). Hala eta guztiz ere, 2025eko hirugarren hiruhilekoa onuragarria izan da G-5 estatuko aireportuentzat (+% 2,8), baita euskal aireportuentzat ere, antzeko hazkundea izan baitute (+% 2,7 G-3 osoan).

Benchmarking-a. Bidaiariak aireportuetan

	II.2025	III.2025	Δ % urte artean	Δ % hiruhileko artean	I. seiuhilekoa. 25 Δ % urte artean
Madril	17.153.929	18.336.478	1,6	6,9	3,0
Bartzelona	15.376.691	16.492.332	4,0	7,3	4,2
Valentzia	3.173.201	3.383.647	3,7	6,6	11,1
Sevilla	2.544.870	2.357.382	1,6	-7,4	6,0
Zaragoza	193.798	208.277	3,2	7,5	2,1
G-5en metatua	--	--	2,8	4,2	4,3
BILBO	1.984.896	2.044.025	1,4	3,1	4,3
Gasteiz	93.586	81.216	4,8	-10,0	18,6
Donostia	134.055	137.823	-1,6	2,8	0,2
Iruñea	60.311	59.253	5,0	-1,8	2,0
G-3ren metatua	--	--	2,7	-3,0	5,5
G-9ren metatua	--	--	2,6	1,7	4,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
b: behin-behinekoa.
Iturria: Aena

Itsas garraioa


Hirugarren hiruhilekoan, 8.377 mila tona garraiatu ditu Bilboko Portuak. Horrek esan nahi du urte batetik bestera % 0,2 gutxitu dela jarduera, jarduera-segmentuaren arabera hainbat portaeraren ondorioz. Hala, ontziratu gabeko solidoen (-% 4,5, -53,4 mila tona) eta salgai orokorren (-% 6,1, -135,9 mila tona) segmentuak behera egin du. Hala ere, ontziratu gabeko likidoek zirkulazio osoaren % 61,4 hartzen dute, eta haien jarduera handitu egin da, duela urtebete baino gehiago (+% 4,2, +206,8 mila tona). Hala ere, bilakaera hori ez da nahikoa gainerako jaitsierak konpentsatzeko. Era berean, edukiontzietan garraiatutako salgaien kopuruak behera egin du (-% 7,8), baita kudeatutako ontzien kopuruak (-% 7,6) eta edukiontzien kopuruak ere (-% 12,0).

Bilboko Portuko jarduerak berriz ere egin du behera urtetik urtera (-% 0,2)

Hiruhilekoaren balantzea, beraz, negatiboa da, eta ez du laguntzen aurreko erregistroak hobetuko dituen ekitaldiko emaitza eraikitzen. Izan ere, urte honetan (urtarriletik irailera) 23.813 mila tona kudeatu dira; horrek esan nahi du urte batetik bestera % 10,1 murriztu dela, ontziratu gabeko likidoen jarduera negatiboak (-% 15,2) oztopatuta, portuko jardueraren % 59,4 baitira. Laburbilduz, laugarren hiruhileko bikaina beharko litzateke ekitaldi honetan metatutako galera konpentsatzeko.

Bigarren hiruhilekoko jarduera negatiboak (-% 24,2) urteko behin-behineko balantzea (-% 10,1) oztopatzen du

Salgaien itsas garraioa



Iturria: Estatuko Portuak.

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina


2025eko bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-a % 2,2 hazi zen, eta 2023ko bigarren hiruhilekoan hasitako hobekuntza-erritmoa finkatu zuen. Lurraldeak, 2021eko lehenengo hiruhilekotik, % 2tik gorako urte arteko hazkunde-tasa du hiruhileko guztietan, nahiz eta profila zertxobait leunagoa izan 2022an baino (+% 8,1, +% 8,3, +% 6,5 eta +% 4,7), EAerekin partekatutako eredu batean.

Bizkaiko ekonomia % 2,2 hazi zen

Enpleguak hazten jarraitzen du (+% 1,6), eta 500.789 lanpostura iritsi da, lanaldi osoko baliokidetzan; gainditu egin ditu urteko lehenengo hiruhilekoan erregistratutako enplegua (498.834 lanpostu) eta 2024ko (494.849) eta 2008ko (493.633) balantzea, serieko hiru baliorik handienak. Enplegu-kopuru horrek, gainera, lehenengo aldiz milioi erdi enpleguren langa gainditzea dakar. Hala, enpleguaren hazkunde-profil hori 2025eko urteko balantzean mantenduz gero, beste maximo historiko bat lor liteke.

Milioi erdi lanpostu baino gehiago daude LOBen

Bizkaiko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Industria

Hirugarren hiruhileko honetan¹⁷ (uztaila-abuztua, behin-behineko datua) Bizkaiko industria-ekoizpenak emaitza positiboa izan du (+% 0,2), eta badirudi azken bost hiruhilekoetako beherakadatik urrun dagoela. Manufaktura-industriaren neutraltasuna (% 0,0) eta uraren segmentuaren hobekuntza (+% 2,0) nabarmentzen dira, erauzketa-industrian (-% 1,3) eta energia, gas eta lurrunaren industrian (-% 0,1) izandako galerak orekatzen baititu. Hala eta guztiz ere, urteko balantze bateratua negatiboa da (-% 1,1) eta, oro har, 2024ko emaitzak okertu egin dira (-% 0,2).

Industria-jarduera zertxobait hobetu da (+% 0,2)

¹⁷ Eustatek Industria Produktzioaren Indizea seriean zuzendu du, eta, beraz, ezin da alderatu bigarren hiruhilekoko txostena.

Industria

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	I.2025	II.2025	III.2025p	2024 (urtarrila- abuztua)	2025 (urtarrila- abuztua)
Produkzio-indizea	-1,0	-1,8	0,2	-0,2	-1,1
Manufaktura-industria	-2,3	-2,1	0,0	-23,8	-1,0
Erauzketa-industriak	-3,1	1,2	-1,3	0,5	-1,7
Energia, gasa eta lurruna	6,0	2,5	-0,1	-6,3	3,3
Ura	5,4	-4,8	2,0	1,1	0,6

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. 2021eko oinarria. Erreferentziako aldiko agregazio-indizearen urtetik urterako aldakuntza. 2025eko bigarren hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, uztaila-abuztuari dagozkionak.
Iturria: Eustat

Merkatuko zerbitzuak

zerbitzuen sektorean salmentak igo egin dira 2025eko bigarren hiruhilekoan (+% 4,9 eta +% 1,5, prezio arrunt eta konstanteetan), eta 2021etik izaten ari den hobekuntza-ibilbideari eutsi zaio. Jarduera-segmentu guztiek egin dute hobera, informazio- eta komunikazio-arloak izan ezik (-% 1,3 eta -% 4,2). Garraioa eta biltegiatzea (+% 8,4 eta +% 3,4) eta ostalaritza (+% 8,8 eta +% 6,1) nabarmendu dira, sektoreko batez besteko balioa baino hazkunde handiagoa izan baitute. Gainera, zerbitzuei lotutako enplegua % 1,0 hazi da. Azkenik, azpimarratu behar da sei hileko balantzeak urte arteko % 4,8ko eta % 2,4ko hazkundera izan duela prezio arrunt eta konstanteetan, eta 2024ko emaitzak hobetu egin direla (+% 4,5 eta +% 2,1).

Zerbitzuen sektoreko salmenten igoera berriz ere (+% 4,9 eta +% 1,5, prezio arruntak eta konstanteak)

Merkatuko zerbitzuak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	IV.2024	I.2025	II.2025	IV.2024	I.2025	II.2025
Salmentak guztira	7,3	4,7	4,9	4,8	3,3	1,5
Garraioa eta biltegiatzea	11,5	8,9	8,4	9,7	10,3	3,4
Ostalaritza	6,9	0,9	8,8	4,8	-1,8	6,1
Informazioa eta komunikazioak	3,8	1,8	-1,3	1,4	-1,0	-4,2
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	6,8	6,1	2,6	4,0	4,1	0,1
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	6,4	3,0	5,6	1,2	-0,4	1,6
Landunen indizea	0,9	0,3	1,0	--	--	--

Bizkaiko datuak (2021eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (urtaro efektua kenduta) eta behin-behinekoen ondorioak zuzenduta uneko urterako.
Iturria: Eustat

Kanpo-merkataritza

Bizkaiko enpresen kanpo-jarduerari buruzko azken datuen arabera (bihilekoa, uztaila-abuztua), esportazio-bolumena 934,2 mila tonakoa da, eta 1.514,3 milioi euroko balioa du; horrek esan nahi du urte batetik bestera % 29,9 eta % 21,0 jaitsi dela, hurrenez hurren. Inportazioei dagokienez, 2.845,3 mila tona inportatu dira, eta, guztira, 2.250,1 milioi euroko balioa dute. Horrek esan nahi du urte batetik bestera % 1,3 igo dela, eta balioa, berriz, % 9,0. Kanpo-jarduera okertzearen arrazoi nagusietako bat Trump-en Gobernuak ezarritako mugazergen neurriak dira.

Bizkaiko enpresen
esportazioek behera egin
dute

Hala ere, beherakada txikiagoa izan da energia-efektua ezabatu ondoren; izan ere, esportazio ez-energetikoak 622,8 mila tona eta 1.385,6 milioi euro izan dira, hau da, % 9,8ko eta % 9,1eko murrizketak, hurrenez hurren. Inportazio ez-energetikoak 979,4 mila tonakoa izan dira, hau da, urte batetik bestera % 9,2ko hazkundea izan da, eta 1.383,2 milioi euroko balioa izan dute. Balio hori ez da ia aldatu, duela urtebeteko zifrarekin alderatuta (-% 0,1).

Hala eta guztiz ere, esportatutako tona bakoitzeko (guztira) batez besteko prezioa 1.621 eurokoa da inportatutako tona bakoitzeko 791 euroko prezioarekin alderatuta; esportazioen batez besteko prezioa pixka bat igo da urte batetik bestera, eta inportazioen batez besteko prezioa jaitsi egin da. Bestalde, esportatutako tona ez-energetikoaren batez besteko prezioa 2.225 eurokoa da, eta inportatutako tona ez-energetikoa 1.411 eurokoa.


Kanpo-merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.

	IV.2024	I.2025	II.2025	III.2025 ¹	Urte arteko Δ %	
					II.2025	III.2025 ²
Bolumena (milaka tona)						
Esportazioak, guztira	1.651,0	1.547,7	1.750,7	934,2	-16,6	-29,9
Esportazio ez-energetikoak	1.011,2	1.045,6	1.004,8	622,8	-4,6	-9,8
Inportazioak, guztira	4.411,2	4.266,6	3.803,4	2.845,3	-22,7	1,3
Inportazio ez-energetikoak	1.258,2	1.408,6	1.453,9	979,4	8,1	9,2
Balioa (milioi euro)						
Esportazioak, guztira	2.817,4	2.679,6	2.845,1	1.514,3	-14,9	-21,0
Esportazio ez-energetikoak	2.486,6	2.414,6	2.442,5	1.385,6	-10,7	-9,1
Inportazioak, guztira	3.617,6	3.719,2	3.505,9	2.250,1	-17,8	-9,0
Inportazio ez-energetikoak	1.968,5	2.137,8	2.233,2	1.383,2	-0,1	-0,1

Bizkaiko datuak. 1. Uztaila-abuztuari dagokion behin-behineko datua 2. Aurreko urteko uztaila-abuztuaren aldean
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Horren ondorioz, Bizkaiko kanpo-merkataritzaren saldo osoa defizitariora da (-735,8 milioi euro), eta positiboa da energia-osagaia kenduta (+3,3 milioi euro). Erantsitako grafikoak agerian uzten du jarduera ez-energetikoak garrantzi handia duela esportazioen eta inportazioen balioan (% 91,5 eta % 61,4), eta bi kasuetan nabarmen gaintitzen du bolumenari dagokionez egiten duen ekarpena (% 66,7 eta % 34,4, hurrenez hurren).


Esportazio eta inportazio ez energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. 2025eko apiril-maiatzari dagozkien bigarren hiruhilekoko datuak.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Azkenik, urteko bigarren hiruhilekoan (eskura dagoen azken datua), Bizkaiko esportazioen ratioa, BPGd-arekiko, % 21,7koa da, eta azken hamarkadako mailarik baxuenetan mantentzen da. Emaita horrek erakusten du esportazioek bilakaera negatiboa izan dutela (-% 29,9, 2025eko uztail-abuztu bihilekoan), eta hori ez dator bat Lurraldeko jardura ekonomikoak izan duen emaitza onarekin (+% 4,6 urtetik urtera, 2025eko bigarren hiruhilekoan, prezio arruntetan, datu gordinetan).

Esportazioen ratioa BPGd-rekin alderatuta (%).



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoetako kontuak (Eustat, 2022ko oinarria)


ENPRESA-JARDUERA

Sozietate berriak

Urteko hirugarren hiruhilekoan areagotu egin da sozietate berrien sorreraren beheranzko profila, eta Bilbon 200 sozietate berri inguru sortu dira (201). Kopuru hori % 13,0 jaitsi da hiruhileko batetik bestera, eta, beraz, bost ekitaldi dira jada hirugarren hiruhilekoan dinamismoa galdu dela sozietate berrien sorreran (-% 18,6 2021ean, -% 27,3 2022an, -% 24,7 2023an eta -% 9,5 2025ean), eta horrek agerian uzten du sozietate berrien sorreraren urtaroko izaera.

Urte arteko datuei dagokienez, bilakaerak emaitza egonkorragoa izan du (+% 0,5), eta urtetik urtera hazteko joera dagoela ikusten da. Ondorioz, urteko hirugarren hiruhilekoko balantzean, 700 sozietate berri inguru sortu dira (692); horrek esan nahi du urtetik urtera % 6,1 handitu dela.

Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza-erregistroa

Merkataritza-sozietate berriak

	IV. 2024	2025.I	II. 2025	III. 2025	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean
Sozietate berriak	212	260	231	201	-13,0	0,5
Lehenengo sektorea	1	4	1	1	0,0	--
Industria eta energia	8	12	9	3	-66,7	-62,5
Eraikuntza	29	32	25	28	12,0	21,7
Zerbitzuak	174	212	196	169	-13,8	0,0

Iturria: Merkataritza-erregistroa

Ohikoa denez, sortutako sozietate berri gehienak zerbitzuen sektorekoak dira (169 enpresa), eta sortutako sozietate guztien % 84,1 dira. Jarduera-adarren arabera, sozietate gehien sortu dituzten jarduerak jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (30), eraikuntza (28), higiezin jarduerak (26) eta ostalaritza (24) dira. Guztira, lau jarduera horiek Bilbon sortutako elkarten bi heren baino gehiago dira.

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2025eko III. hiruhilekoan)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	30
Eraikuntza	28
Higiezin jarduerak	26
Ostalaritza	24

Iturria: Merkataritza-erregistroa

Desegindako sozietateak

Gainera, aldi berean 72 sozietate desegin dira Bilbon, eta horrek esan nahi du desegindako sozietate gutxiago daudela, bai oraingo hiruhilekoaren aldean (-% 23,4), bai 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean (-% 5,3). Hala eta guztiz ere, irailera arteko metatuan 305 sozietate desegin dira, 2024ko aldi berean baino % 7,4 gehiago (desegindako 21 sozietate gehiago).

Aurreko hiruhilekoan baino sozietate gutxiago desegin dira

Testuinguru horretan, saldo garbia (sortutako sozietateak ken desegindakoak) positiboa da (127 sozietate). Jarduera-sektoreka, zerbitzuak nabarmentzen dira: 116 sozietateko saldo garbia dute, eta, ondoren, eraikuntza (19 sozietate). Industriaren eta energiaren sektoreak saldo garbi negatiboa izan du urteko hirugarren hiruhilekoan (-6 sozietate).

Azkenik, sozietate desegin gehien dituzten jarduerak merkataritza eta konponketa (13), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (9), eraikuntza (9) eta informazio eta komunikazioak (6) dira.

Desegindako sozietateak

	IV. 2024	2025.I	II. 2025	III. 2025	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean
Desegindako sozietateak	110	139	94	72	-23,4	-5,3
Lehenengo sektorea	0	3	0	1	--	--
Industria eta energia	4	10	2	9	350,0	125,0
Eraikuntza	9	12	6	9	50,0	28,6
Zerbitzuak	97	114	86	53	-38,4	-18,5

Iturria: Merkataritza-erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2025eko III. hiruhilekoan)

Merkataritza eta konponketak	13
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	9
Eraikuntza	9
Informazioa eta komunikazioak	6

Iturria: Merkataritza-erregistroa

III. hiruhilekoa 2025

	Adierazleak		
	Azken datua	Urte arteko Δ (%)	Aldia
LAN-MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	175,8	-0,5	III. hiruhilekoa
Landunak (milakotan)**	164,6	1,9	III. hiruhilekoa
Langabeak (milakotan)**	11,2	-25,3	III. hiruhilekoa
Langabezia-tasa (%)**	6,36	-2,2	III. hiruhilekoa
Langabe erregistratuak (pertsona kop.)**	20.927	-1,8	Iraila
Afiliatuak (kop.)	197.194	2,1	Iraila
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	31.721	8,7	III. hiruhilekoa
MERKATARITZA			
Afiliatuak	20.124	-0,3	Iraila
Kontsumo-prezioak (indizea)***	119,4	3,2	Iraila
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	746.391	5,8	III. hiruhilekoa
Bidaariak (kop.)	368.625	7,1	III. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaariak)	2,02	-0,02	III. hiruhilekoa
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tonatan)	8.377,0	-0,2	III. hiruhilekoa
Bidaarien aire bidezko garraioa	2.046.199	1,4	III. hiruhilekoa
ENPRESA-JARDUERA			
Industria-produkzioa (indizea)**	183,2	0,1	uztaila-abuztua
Merkataritzako sozietate berriak (kop.)	201	0,5	III. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	72	-5,3	III. hiruhilekoa

*Ehuneko puntuak.

** Bilbon bizi den biztanleria.

*** Bizkaia dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentzia-aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituta: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.